

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2021-2022 IKASTURTEA

**Irakaskuntza eta ikaskuntza
planifikatzeko orientabideak**

www.ehu.eus

AURKIBIDEA

Sarrera	5
1. Kontuan hartu beharreko babes neurriak	7
2. Irakaskuntzaren egokitzapenak	9
2.1. Jarduera presentzialak	9
2.2. Presentzialtasun egokitua	10
2.3. Modalitate praktikoak: laborategiak, tailerrak.....	12
2.4. Curriculumeko eta curriculumez kanpoko praktikak.....	12
3. Ebaluazioa	13
4. Irakasgaien irakaskuntza gidak eguneratzea	13
5. Ikasleak.....	14
6. Baliabideak	15
7. 2021-2022 ikasturteko ordutegiak egiteko hainbat gomendio	16
8. Ikastegi bakoitzak egin beharreko lana.....	16
9. Negoziazioa	17
10. Jarraipen Batzordea	17
11. 2021-2022 ikasturterako orientabideen eta planen eguneratzeak onartzeko egutegia	17
Glosarioa	18
Eranskina	19

SARRERA

COVID-19ak eragindako pandemiak eragin izugarri handia izan du arlo guztietan, eta unibertsitatean aldaketa handiak egin behar izan ditugu gure jardueraren alderdi guztietan, oso denbora epe laburrean.

Zenbateko iraupena izango duen nekez jakin daitekeen «normaltasun berriaren» aldian, osasun agintariak ezarritako prebentzio eta babes neurriak betetzeko derrigortasunak hainbat jarduera ildo diseinatuz eraman zigun, presentzialtasun maila ahal bezain handia izateko, neurri horiekiko bateragarritasunez eta errespetuz betiere; izan ere, ezin dugu ahaztu Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, batez ere, unibertsitate presentzial bat dela.

2021-2022 IKASTURTEA dokumentu honen helburua zera da UPV/EHUko ikastegiei berrikusitako ildo batzuk ematea, 2021-2022 ikasturteko plangintza egitean kontuan hartu ahal izango dituztenak. Horrez gain, ezin dugu ahaztu ikastegien funtzionamendurako neurriak bete beharko direla eta osasun egoerak eskatzen duenean eguneratu egingo direla; era berean, unean-unean aplikagarria den araudia bete beharko da (<https://www.ehu.es/eu/zentroen-funtzionamendurako-neurriak>). Gainera, bete egin beharko dira une bakoitzean indarrean diren gai akademikoei buruzko erabakiak (jarraibideak eta zirkularrak) (<https://www.ehu.es/eu/temas-acad%C3%A9micos>), baita irakasleei eta tutoretzei buruzkoak ere (<https://www.ehu.es/eu/web/iip/tutoretzen-araudia>).

Irakaskuntza egokitzeko neurriak osasun agintariak une oro ezarritako irizpideen arabera moldatuko dira, eta haien gomendioen arabera zorroztu edo lasaituko dira; hortaz, malguak eta aldakorak izango dira. Kalitatezko unibertsitate irakaskuntza ematearen eta ikasleen eta langileen osasuna babestearen arteko oreka ahalbidetu behar dugu kasu guztietan.

Aurrekoa aintzat hartuta, dokumentu honetan zerrendatutako orientabideek UPV/EHUren irakaskuntzaren izaera presentziala mantendu nahi dute, ahal den neurrian, baina hura egokituta segurtasun tartearen, edukiera mugatuaren eta neurri higieniko-sanitarioen testuingurura.

2021-2022 ikasturtea planifikatzeko orientabideek prestakuntza presentzial egokituaren ikuspegiaren planteamenduari eusten diote; hau da, alderdi presentziala lehenetsiko da, baina eskola telematikoekin eta saio asinkronikoekin osatuko da. Presentzialtasun egokituaren arabera lan eginez 2020-2021 ikasturtean hartutako esperientziak 2021-2022 ikasturteari nahikoa bermez aurre egiteko aukera ematen digu.



1. irudia. Irakaskuntza-ikaskuntzaren antolaketaren logika, COVID-19aren arabera.

2021-2022 IKASTURTEA dokumentuak Gobernu Kontseiluak 2020ko uztailaren 9an onartutako 2020-2021 ikasturteko irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideak eguneratzen ditu. Orientabide horiek Errektoretza Taldearen hasierako proposamena batetik sortu ziren, eta gero Ikasleen Kontseiluko ordezkari batek eta UPV/EHUko sei ikastegietako dekanotza eta zuzendaritza taldeetako ordezkariak (campus bakoitzeko bi) egindako proposamenekin kontrastatu eta osatu ziren. Gero, dekanotza eta zuzendaritza taldeek, ikasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileen eta irakasle-ikertzaileen ordezkariak egindako ekarpenak sartu ziren. Dokumentu horrek jarraipen batzorde baten eraketa jasotzen zuen, honako hauek osatutakoa:

- ➔ Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordea.
- ➔ eCampuseko zuzendaria.
- ➔ Berdintasun zuzendaria.
- ➔ Irakasleen zuzendaria.
- ➔ Antolakuntza akademikoaren kudeaketa aholkularia.
- ➔ Prebentzio Zerbitzuaren burua.
- ➔ Arrisku psikosozialez arduratzen den prebentzioko teknikaria.
- ➔ Irakasle-ikertzaileen 3 ordezkari.
- ➔ Ikasleen ordezkari bat.

Batzorde hori irakaskuntza modalitate guztien jarraipena egiteko eratu zen, eta haren zeregina zen plangintza zuzen garatzen dela zaintzea eta organo eskudunei dagozkion aldaketak eta egokitzapenak egin ditzaten eskatzea, hala behar izanez gero. Zeregin horiek betetzean, jarraipen batzorde horrek 2020-2021 ikasturterako emandako orientabideak egokitzen dituen dokumentu hau proposatu du 2021-2022 ikasturtean aplikatzeko.

Hala, 2020-2021 ikasturteko irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideen oinarriko edukitik abiatuta, zeina unibertsitateko hainbat kolektibok adostu baitzuten, beharrezkoak diren egokitzapenak sartu dira, gaur egun nahitaez bete beharreko osasun neurriak eta 2020-2021 ikasturtean eskuratutako esperientzia aintzat hartuta. Hori guztia, UPV/EHUko ikastegien zuzendaritza eta dekanotza taldeen ekarpenak jaso ondoren.

1. Kontuan hartu beharreko babes neurriak

COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko premiazko prebentzio, euspen eta koordinazio neurriei buruzko martxoaren 29ko 2/2021 Legean, kautelazko eta babeseko betebeharrak orokor bat ezartzen da, zeinak UPV/EHU 2021-2022 ikasturtearen planifikazioan eragin zuzena izaten jarraitzen baitu. Ikastegiei dagokienez, honako hau ezartzen du: «deberá asegurarse la adopción de las medidas organizativas que resulten necesarias para evitar aglomeraciones y garantizar que el alumnado y trabajadores puedan cumplir las indicaciones de distancia o limitación de contactos, así como las medidas de prevención personal, que se indiquen por las autoridades sanitarias y educativas.»

Bestalde, Osasun Publikoaren Batzordeak 2021/03/11n onartutako Osasun eta Unibertsitateen ministerioen «COVID-19aren aurrean prebentzioa, higiena eta osasuna sustatzeko neurriak unibertsitateentzat 2020-2021 ikasturterako» dokumentuak (https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/COVID19_Medidas_Centros_Universitarios_11-03-21.pdf), prebentziorako gako neurri gisa honako hauek ezartzen ditu: «Kontaktuak mugatzea, 1,5 metroko tartea mantenduta, eta jende pilaketak saihestea; maskararen erabilera egokia eta eskuetako higiena, transmisioa saihesteko oinarritzko neurri gisa, baita arnasketa higiena ere; espazioak maiz aireztatzea eta zentroa garbitzea; eta, sintomak dituzten eta isolatuta edo berrogeialdian dauden pertsonak unibertsitate ikastegietara ez joatea».

COVID-19ari aurre egiteko indarrean den araudia betetzen dela ziurtatzeko, UPV/EHUK nahitaez bete beharko diren baldintza hauek finkatu ditu:

1. Jende pilaketak saihestu behar dira. Horretarako hainbat aukera planteatzen dira:
 - Maila eta/edo taldeen sarrera eta irteera ordutegiak mailakatuak izatea, ahal den neurrian.
 - Gomendatzen da ikasgelako gehieneko edukiera ez izatea, oro har, 50 pertsonatik gorakoa. Hori saihesteko, aintzat hartuko dira irakaskuntza antolatzeko jarraian zehazten diren aukerak edo ikastegi bakoitzak bere tituluen ezaugarrien arabera diseinatuko dituen beste batzuk.
 - Irakasgai batean edo prestakuntza jarduera batean modu telepresentzialean parte hartzen ari diren ikasleak, ahal bada, ikastegitik kanpoko espazioetan egongo dira, zona komunetan, ikasteko geletan eta liburutegietan ikasleen pilaketak saihesteko.
2. UPV/EHUKo langileek eta ikasleek maskara erabili beharko dute nahitaez. Hainbat motatako maskarak onartuko dira: higienikoak, kirurgikoak edo bestelako babes maskarak, hala nola FFP2ak, Prebentzio Zerbitzuak unibertsitateko langileei egoera jakin batzuetan halakoak erabiltzeko adierazten badie. Maskara higienikoei dagokienez, gomendatzen da, ahal bada, berriro erabil daitezkeen modeloak erabiltzea, eta modelo horiek maskara mota horien informazio eta merkaturatze baldintzak ezartzen dituen otsailaren 11ko CSM/115/2021 Aginduak jasotako espezifikotasun teknikoak bete beharko dituzte.

3. Oro har, gutxienez 1,5 metroko distantzia gorde behar da pertsonen artean, ikastegiaren instalazio guztietan.
4. Ikasgelen aireztapen egokia egingo da irakaskuntza-ikaskuntza jardueran.
5. Ikastegiaren barruan ahal den neurrian ikasleen mugimendua mugatzeko, ikasleek ikasgela bera erabiliko dute ahal bada, eta, horren barruan, leku berean eseriko dira, irakasgaien eta espazioen ezaugarriek halakorik egitea ahalbidetzen dutenean betiere.
6. UPV/EHUko ikastegiaren funtzionamendurako neurrietan jasotako babes, garbitasun eta desinfekzio neurri guztiak aplikatuko dira.

Nabarmentzekoa da neurri horiek aldatu ahal izango direla, osasun eta hezkuntza agintariek hartutako erabakien arabera. Horren harira, UPV/EHUko ikastegiaren funtzionamendurako neurrietan ezarritakoari jarraituko zaio une oro (<https://www.ehu.eus/eu/zentroen-funtzionamendurako-neurriak>).

Zehazki, osasun egoeraren bilakaera positiboa emango balitz eta araudi esparruak ahalbidetuko balu, ikastegiaren funtzionamendurako neurriak ahalik eta lasterren egokituko lirarteke, presentzialtasun ehuneko handienak arian-arian berreskuratuzko.

2. Irakaskuntzaren egokitzapenak

Gure unibertsitatearen izaera presentziala dela eta, indarreko legedian ezarritako neurriek ahalbidetzen badute, ikastegiak irakaskuntza modalitate presentziala ahal bezainbestekoa izateko planifikazioa egingo dute. Aurreikusten da beharrezkoa izan daitekeela ikaskuntza presentziala eta telepresentziala konbinatzea, baina gomendatzen dugu eskola telepresentzialak soilik ez ematea talde eta lauhileko bakoitzeko 2 irakasgai baino gehiagotan, ezta 15 kreditu baino gehiago ere, master tituluen kasuan, horrek esan nahi du ezingo dela eman ikastaro oso bat modalitate ez-presentzialean.

Gogoratu behar dugu gure unibertsitatea oso behar eta ezaugarri desberdinak dituzten hogeik ikastegi osatzen dutela; hortaz, datorren ikasturteko planifikazioak ez du zertan berdina izan ikastegi guztietarako, ez ikastegi bereko titulu guztietarako, ez titulu bereko maila guztietarako.

Nabarmentzekoa da dokumentu honek 2020-2021 ikasturtean emandako antzeko egoera batean planteatzen duela ikasturtearen antolakuntza, baina berrikus daitezke; izan ere, beste konfinamendu bat egongo balitz, irakaskuntza telepresentzialera itzuliko ginateke, eta eGela eta unibertsitateko kideen esku bideokonferentzietarako jarritako tresna erabili beharko genuke. Egoera horretan, irakasle guztiek baliabide horiek erabili beharko lituzkete irakasgaien garapena ziurtatzeko, ikasleen ikaskuntza egokirako lagungarriak izan daitezkeen beste batzuk baztertu gabe. Bestalde, egoera hobetuko balitz eta osasun agintariak gaixotasuna kontrolpean dutela berretsiko balukete eta zentzu horretan aplikatzen den indarreko legedia baliogabetuko balitz, erabateko presentzialtasuna berreskuratuko genuke.

2.1. Jarduera presentzialak

Titulu guztietan hainbat irakasgai edo jarduera identifikatu daitezke, zeinetan bide telematikoen bidezko ikaskuntzak errazago ordezka baitezake ikaskuntza presentziala. Hori dela eta, titulu bakoitzak ezinbestean modu presentzialean garatu behar diren irakaskuntza jarduerak edo modalitateak aukeratu beharko ditu, ikasleek dagozkion ikasketa planetan jasotako gaitasunak modu egokian eskuratzen dituztela ziurtatzeko. Hautaketa irizpide posible gisa, honako hauek erabil daitezke:

- ➔ Eskola presentzialak lehenestea modalitate praktikoetan, azalpen eta maisu izaerako modalitateen aurrean.
- ➔ Eskola presentzialak lehenestea hasierako mailetan, azken mailen aurrean, non ikasleek autonomia handiagoa eta ikasketak urrunetik jarraitzeko erraztasun handiagoa duten.

Tituluak ematen dituzten ikastegietako zuzendariak beste proposamen batzuk adostu ahal izango dituzte arduradunekin, baldin eta proposamenek ikasleengan izango dituzten onurak egoki justifikatzen badituzte eta bateragarriak badira ikastegiaren behar orokorrekin.

Jarduera presentziala ahal den guztietan ziurtatzeko ahalegin horretan, aintzat hartu beharko dugu ere ikastegiaren eta, beraz, unibertsitatearen espazioak berrantolatu beharko direla. Horren harira, honako gomendio hauek egiten dira:

- ➔ Espazioak optimizatzea, ikasgelak taldearen tamainara hobeto egokituta, baimendutako edukieraren eta errespetatu beharreko distantziaren arabera.
- ➔ Gutxi erabilitako espazioak (esate baterako, sailen mendeko laborategi jakin batzuk, espazio komunak...) hautematea eta beste erabilera batzuk emateko aukera aztertzea.
- ➔ Campuseko beste eraikin batzuetako ikasgelak erabiltzea (ikasgelategiak, etab.).
- ➔ Irakaskuntza erregularrerako erabiltzen ez diren espazioak erabiltzea: esate baterako, graduako aretoak... Erabilera osagarri horrek bateragarria izango beharko luke espazio horien erabilera nagusiarekin.
- ➔ Irakaskuntza txandaka antolatzea:
 - Goizeko eta arratsaldeko txandak (maila batzuk goizez eta beste batzuk arratsaldez).
 - Egunak txandatzea (mailetako irakaskuntza presentziala «egun osora» programatzea, baina ez egunero).
 - Txandakako antolakuntzaren abantaila bat da mugikortasuna murrizten dela eta horrela jende pilaketak saihesten direla.

2.2. Presentzialtasun egokitua

Presentzialtasun egokituan emandako irakaskuntza-ikaskuntzan jarduera nagusiki presentziala konbinatzen da jarduera telepresentzialarekin eta ikasleen ikaskuntza autonomorako prestakuntza jarduera ez-presentzialekin. Irakasgaien formatu presentzialesan ohikoa den lan metodologia erabiltzen da, baina ikasle batzuek urrunetik jasotzen dute, unibertsitateko kideen esku bideokonferentzietarako jarritako tresnaren bidez eta ahal bada aldi berean; horrela, irakaslearekin eta ikaskideekin elkarrekintzan aritzeko aukera dute. Hortaz, ikaslea ikaskuntza ingurune bimodal batean dago, eta irakaslearekin harreman estua du, nahiz eta batzuetan, jarraipena telematiko izan. Eredu horren abantaila zera da, egiaztapen memorieta jasotako ohiko irakaskuntza plangintza mantentzeko aukera ematen dizula, aldaketa gehiegi egin gabe, eta aldi berean UPV/EHUren hezkuntza ereduaren kalitatea ziurtatzeko aukera duzula. Prestakuntza jarduera asinkronikoen kasuan, garrantzitsua da ikasleekiko elkarrekintza maila altuari eustea, prestakuntza izaera izan dezaten.

Irakasleek beren irakaskuntza betebeharrak bete beharko dituzte, irakaskuntza ingurune presentzial edo presentzial telematiko batean ematen duten albo batera utzita.

Presentzialtasun egokituko agertoki bat diseinatzean, unibertsitateko kideen esku bideokonferentzietarako jarritako tresna erabiltzea proposatzen da, hainbat multimedia elementurekin (kamera eta mikrofonoa) osatuta, jarduera presentziala eta telepresentziala konbinatzeko sistema gisa. Orientabide hauen arabera irakaskuntzaren arloan,

datu pertsonalen tratamendua datu pertsonalen babeserako araudian aurreikusitako eskubideak eta bermeak errespetatuz egingo da.

Hainbat aukera aurreikus daitezke:

- ▶ **Jarduera presentziala eta telepresentziala konbinatzea talde osoarekin.** Irakaslea eta ikasle batzuk ikasgela fisiko berean daude, eta gainerakoek bideokonferentzia bidez parte hartzen dute. Aukera hauek eman daitezke:
 - ☛ Taldearen zati bat fisikoki ikasgela batean egotea, eta beste zati bat, berriz, urrunetik konektatzea unibertsitatekanpoan egonda. Kasu horretan, txandak antolatu behar dira bi taldeen artean, modu parekidean (esate baterako, astea: taldearen erdiek irakaskuntza presentziala jasotzen dute aste batean, eta hurrengoan ez doaz ikastegira eta modu telepresentzialean egiten dute lan).
 - ☛ Taldearen zati bat ikasgela fisiko batean dago, eta beste zatia, beste ikasgela fisiko batean; horrela, irakasleak aldi berean egiten du lan bi taldeekin eta ikasgela batetik bestera joan daiteke, eskolak emateko. Aukera horrek, «ispilu ikasgela» gisa ezaguna denak, antolakuntza zailtasunak eta zailtasun teknikoak sortu ditu hainbat ikastegitan 2020-2021 ikasturtean; hortaz, haren aplikazioa arretaz baloratzea gomendatzen dugu, eta, oro har, aurreko puntuan jasotako aukera hobesten da.

Aukeratutako forma garatzeko eGelaren erabilera lehenetsiko da; hortaz, ikasleak erraz sartu ahal izango dira bideokonferentzia saioetara. Irakasle arduradunek irakaskuntza eta ikasketa helburuetarako egokia dela irizten badiote, saioak irudi eta/edo soinu formatuan grabatu ahal izango ditu, irakasgai irakasle arduradunek eta dagozkion ikasleek gerora kontsultatu ahal izateko. Ikasleek ezingo dituzte irakaskuntza saioak grabatu, baina egiten direnak gorde, eta eskuragarri egingo dira, hasierako helburuei erantzuten dieten bitartean. Zentzu horretan, dena delako irakasgai/taldearen ikasleek bakarrik ikusi ahal izango dituzte grabazioak. Edonola ere, irakaskuntza saioetan ezgaitasunak dituzten pertsonak, genero indarkeria edo jazarpen biktimak eta, oro har, kolektibo kalteberen kideak identifikatzea ahalbidetzen dituzten datu pertsonalak ez grabatzeko, tratatzeko eta gordetzeko ahalegina egingo dugu.

- ▶ **Irakaskuntza modalitate jakin batzuk batez ere urrunetik ematea (alderantzizko gela eta/edo telepresentzialtasuna).**
 - ☛ Irakasgai baten irakaskuntza modalitate batzuk bideokonferentzia bidez ematen dira, ikasleak ikastegian egon gabe. Kasu horretan, komenigarria izango litzateke irakaskuntza ez-presentziala talde jakin batean biltzen saiatzea, taldeko kideak ikastegira joan ez daitezen, esate baterako, astean egun batean.
 - ☛ Aukera horren abantaila da ikasleen mugikortasuna murrizten dela eta ikastegiko espazioak libratzen direla. Era berean, aukera horrek saioak eGelan grabatzea eta biltegitratzea ahalbidetzen du, askotariko arrazoiengatik irakaskuntza modu sinkronikoan jaso ezin duten ikasleentzat.

2.3. Modalitate praktikoak: laborategiak, tailerrak...

Eduki praktiko handiko irakasgaiak edo jarduerak planifikatzean, kontuan har daitezke honako aukera hauek:

- Laborategietan egoteko denbora optimizatzea: esate baterako, praktikak prestatzeko eta amaitzeko zatiak gela arrunt batean eman daitezke, eta laborategian sartu esperimentaziorako behar den denborarako bakarrik.
- Praktika osoa modu presentzian egiteko aukera izan ezean, urrunetik landu ezin daitekeena lehenetsiko da, eta gainerako guztia lantzeko beste aukera batzuk bilatu beharko dira.

2.4. Curriculumeko eta curriculumez kanpoko praktikak eta praktika klinikoak

Curriculumeko kanpo praktikak eta praktika klinikoak tituluaren memoria egiaztatuan eta erakunde laguntzaileekin dauden hitzarmenetan ezarritako baldintza beretan mantenduko dira.

Curriculumeko eta curriculumez kanpoko praktikak eta praktika klinikoak antolatzean, errespetatu beharko dira, une oro, halakoak egingo diren antolakuntza unitateetan, enpresetan eta erakundeetan ezarritako neurriak.

Osasun neurriak betetzeagatik erakunde laguntzailean igaro beharreko ordu presentzialen kopurua mugatu behar bada, jarduera presentzial horiek beste era bateko jarduerekin konbinatuko dira (proiektuak, memoriak, prestakuntza programak, etab.), betiere ebaluatu badaitezke eta ikasleek nahikoa gaitasun eskuratzen dituztela bermatzen badute.

Erakunde kolaboratzailean presentzia fisikoa izatea ezinezkoa bada, prestakuntza helburuei eusteko ahalegina egingo da, erakunde kolaboratzailearekin batera urruneko jarduerak eginez, hark onartzen badu betiere. Egutegia eta metodologia kanpo tutoreekin adostu beharko dira.

Osasun egoera okertzen bada eta agintariak hura egitea debekatzen badute, UPV/EHUK ikaskuntza aukera osagarriak planteatuko ditu.

Curriculumeko praktiken eta praktika klinikoaren kasuan, gaitasunen jabeakuntza bestelako prestakuntza jardueren bidez osatu ahal izango da, horretarako baldintzak ematen badira betiere. Kasu horretan, barne tutoreek praktiken jarraipen lan handiagoa egin beharko dute. Praktikak ikaskuntza ez-presentzialeko tipologia batera egokitu ezin direnean, unibertsitateak horiek modu intentsiboan egiteko aldia luzatu ahal izango du, osasun egoerak ahalbidetzen duenean.

Lanbide batera bideratutako titulu arautuen kanpoko praktika luzei dagokienez, aintzat hartuko dira dekanoen konferentziek hartutako erabakiak eta emandako gomendioak, eta konferentzia horietan proposatutako konponbideak ezartzen saiatuko gara, ikasleek eskuratutako gaitasunak antzekoak izan daitezen estatu osoan.

Curriculumez kanpoko praktiken kasuan, amaitu gabeko kreditu praktikoak online ikastaro osagarrien bidez (zeharkako gaitasunak, identitate digitala, enplegurako baliabideak) baliokidetu dira.

3. Ebaluazioa

Indarreko araudian ezarritako neurriek horretarako aukera ematen dutenean, ikastegiei ebaluazioa modu presentzian planifikatuko dute. Edonola ere, oraindik ere aurreikus ezin den salbuespeneko egoera batean gaudenez, gomendatzen dugu irakasgai guztietan ebaluazio jarraitua planteatzea; horrela, hainbat proba, entregatzeko lan eta ariketa egingo dira eskolaldiak iraun bitartean, eta horien bidez ikasitakoaren ebaluazio jarraitua egin ahal izango da. Horrez gain, irakasgai guztietan ebaluazio ez-presentzialeko aukera bat proposatu behar da, 4. puntuari zehazten den moduan. Zentzu horretan, indarrean egongo dira *EHU edonondik* eta *EHU edonondik/ebaluazioa* dokumentuen gomendioak.

Edonola ere, ebaluazioari dagokionez ere, gai akademikoei buruz unean-unean indarrean diren erabakietan (jarraibideak eta zirkularrak) ezarritakoa bete behar dela gogoratzen dugu (<https://www.ehu.eus/eu/temas-acad%C3%A9micos>).

4. Irakasgaien irakaskuntza gidak eguneratzea

Aurreko ikasturteetan bezala, irakasle taldeek irakasgaien irakaskuntza gidak eguneratu beharko dituzte GAUREn, 2021-2022 ikasturtea hasi aurretik. Ikasleen matrikulazio aldia uztailaren 19an hasten dela kontuan hartuta, irakaskuntza gidak eguneratzea webgunean ezagutzera emango da data hori baino lehen. Irakasle taldeetan eta sailetan aurreikusitako ohiko aldaketek gainera, eguneratze honetan ebaluazioari buruzko informazio xehea emango da, dokumentu honen 3. atalean jasotako argibideak kontuan hartuta:

- Ebaluazio modalitatea.
- Beste ebaluazio aukera bat, hura modu ez-presentzian edo urrunetik egin beharko balitz.

Ez da beharrezkoa 2021-2022 Irakaskuntza Egokitze Planean, egutegian eta ordutegietan jasotako aldaketa guztiak gidetan sartzea.

5. Ikasleak

Ikasleek ikasturtearen eta irakasgaien antolakuntza orokorra behar besteko aurrerapenez ezagutu beharko dute, eta, edonola ere, 2021-2022 ikasturtearen matrikula epea ireki aurretik. Era berean, ikasleek egokitutako eta eguneratutako irakaskuntza gidak eskuratu ahal izango dituzte.

Haien ikaskuntza egoera zein den albo batera utzita, ikasleek beharrezkoa den irakasleen ikuskapena jasoko dute. Tutoretzak, urrunetik egin izan ahalko direnak, oso garrantzitsuak izango dira. Edonola ere, tutoretzak egiteko moduari dagokionez, unean-unean indarrean diren erabakiak (jarraibideak eta zirkularrak) bete beharko dira (<https://www.ehu.eus/eu/web/iip/tutoretzen-araudia>).

Bestalde, beren jarduera profesionala edo familia egoera albo batera utzita, aparteko egoera pertsonalen (hala nola gaixo edo ospitalean daudenak) eraginez UPV/EHUn ikasketak modu presentzian jarraitu ezin dituzten ikasleei dagokienez, sailek ikasle horiek matrikulatuta dauden irakasgaietan beharrezkoak diren egokitzapen akademikoak eta pedagogikoak egin beharko dituzte, egoera horietan ikasten jarraitzeko aukera dutela ziurtatzeko. Horren harira, gai akademikoei dagokienez, unean-unean indarrean diren erabakiak (jarraibideak eta zirkularrak) bete beharko dituzte (<https://www.ehu.eus/eu/temas-acad%C3%A9micos>).

Ebaluazio proba presentzialen kasuan, egokitzat iritzitako bitartekoak jarriko dira, probak gainerako ikasleen aukera berdinetan egin ahal izateko, eta 3. puntuari aipatutako erabakietan ezarritakoa beteko da betiere.

Azaldutakoa aplikatuko zaie bai kasu partikularrei, bai deskribatutako egoeren baldintzapean dauden ikasleen kolektiboari.

6. Baliabideak

UPV/EHUKo ikastegiak plan horiek martxan jartzeko 2020-2021 ikasturtean egin diren ekintza batzuk dira honako hauek:

- Ikasgeletan kamerak, mikrofonoak eta bozgorailuak jartzea, beharrezkoa zenean, eskolak zuzenean emateko.
- Ikasgeletako ekipamendua, hala behar zenean, hobetzea (ordenagailuak, proiektoreak...).
- BlackBoard Collaborate programaren lizentziamendua egokitzea, konkurrentziari dagokionez, presentziantasun egokituaren formatu berriak sortutako beharrei erantzuteko.

- Irakasleen prestakuntza plana indartzea, gaitasun digitala hobetzeko ikastaro espezifikoak antolatuz.
- Ikasleentzako laguntza itzulgarrien urteko deialdia: matrikula ordaintzea + COVID-19tik eratorritako aparteko gastuak.
- Ekipo eramangarri bat ematea, lan tresna gisa, halakorik ez zuten irakasleei (egoerak banan-banan aztertuta).
- Ordenagailuak maileguan uzteko eta/edo Internetera konektatzen laguntzeko zerbitzu bat antolatzea, zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzat.

2021-2022 ikasturtean, honako ekintza hauekin jarraitzea aurreikusi da:

- 2021-2022 ikasturterako bideokonferentziako tresna zerbitzua kontratatzea, irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak egiten jarraitu ahal izateko, jarduera presentzialen osagarri gisa.
- Irakasleen prestakuntza planean gaitasun digitalaren hobekuntzan eragiten jarraitzea, ikastaro espezifikoak antolatuta berriro ere.
- Matrikula ordaintzeko zailtasunak dituzten ikasleentzako laguntza itzulgarrien urteko deialdia egitea.
- Ekipo eramangarri bat ematea, lan tresna gisa, halakorik ez duten irakasleei (beharrezkoa izango da egoerak banan-banan aztertzea).
- Ordenagailuak mailegatzeko eta/edo Interneten konektatzen laguntzeko zerbitzua, zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzat, egungo egoerak irauten duen bitartean.

Hori guztia presentzialtasun egokiari lotuta ustekabeen sor daitezkeen beste behar batzuei erantzuteko aukera eragotzi gabe.

7. 2021-2022 ikasturteko ordutegiak egiteko hainbat gomendio

Gogoratu behar dugu irakaskuntza bimodalaren kasuan irakasleen betebeharrak irakaskuntza guztiz presentzial baten berberak izango direla. 2021-2022 ikasturterako ordutegiak egitean, kontuan hartu beharko dira jarraian aipatutako gomendioak, horietako batzuk aipatu dira jada dokumentu honetan bertan:

- Titulu guztietan, eta osasun agintarien gomendioak errespetatuta betiere, irakaskuntzaren % 75 gutxienez presentziala izatea bermatzen saiatuko gara.
- Jarduera presentzialen kasuan, eskolak hasteko eta amaitzeko ordutegia ikastegiko maila eta/edo titulu guztietarako berdina izatea saihesten saiatuko gara.
- Ordutegietan ikasleek argi ikusteko moduan identifikatuko da zer jarduera izango diren presentzial eta zer ikasgelatan emango diren.

- Gomendatzen dugu, ahal den neurrian, maila bereko jarduera presentzialak egun berean biltzea (goizez edo arratsalde), ikasleek irakaskuntza telepresentziala (ikastegitik kanpo) eta presentziala txandakatu behar izan ez dezaten.
- Ahal den neurrian, ikasleek ez dute ikasgelaz aldatu beharko.
- Saihestu behar dugu, ahal den neurrian, jarduera presentzialak 20:00ak baino beranduago amaitzea, eguneroko garbiketa eta desinfekzio lanak errazteko.

8. Ikastegi bakoitzak egin beharreko lana

Plangintza on batek koordinazio ona eskatzen du, eta, horretarako, ikastegiek, irakaskuntzaren arduradunak diren neurrian, proposamenen elaborazioa eta jarraipena koordinatuko dute beren zuzendaritza taldeen bidez, sailtako zuzendarien laguntzaz, eta Ikasleen Kontseilua entzun ondoren; zeregin horretan, irakaskuntzaren kalitatea eta ikasleei arreta emateko betebeharra oinarrizko printzipioak izango dira.

2021-2022 ikasturterako *Irakaskuntza Egokitzeko Plana* dokumentu bat izango da, non, laburbilduta, jarduera presentzialaren eta telepresentzialaren ehuneko globalak jasoko diren titulu, irakasgai eta maila bakoitzeko (ikus eranskina). Osorik modu presentzialean ematen diren irakasgaien kasuan, kontuan hartu beharko dira portzentaje globalak kalkulatzeko unean, baina ez da beharrezkoa izango horiek zerrendan sartzea. Halere, barruan sar daitezke, ikastegiak egoki irizten badio.

Hori egiteko, UPV/EHUko ikastegiek Batzorde Espezifiko baten laguntza jasoko dute, zeina Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordeak, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako errektoreordeak eta Kalitate eta Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuaren zuzendariak osatua egongo baita. Nahi duten ikastegiek batzorde horri kontsultak egin, eta planari oniritzia eman diezaion eskatu ahal izango diote. Horren helburuak dira ikastegietako arduradunei plana egiteko laguntza eta babes ematea, alderdi korapilatsuak aztertzea, eta denon artean konponbide onenak aukeratzea. Aipatutako Aholkularitza Batzordearen oniritzia ez da, inondik ere, Irakaskuntza Egokitzeko Plana onartzeko nahitaezko baldintza bat; izan ere, plana, behin amaituta, ikastegiko Kalitate Batzordeak aztertu, eta Ikastegiko Batzarrak onartu beharko du.

Informazioa publikoa eta eskuragarria izatearen baldintza betetze aldera, 2021-2022ko Irakaskuntza Egokitzeko Plana ikastegiko webgunean argitaratu beharko da, Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemari lotutako atalean.

9. Negoziazioa

Dokumentu honen 2020-2021eko bertsioa irakasle-ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen negoziazio mahaietan aurkeztu zen, baita Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordean ere.

Ikastegi guztien Irakaskuntza Egokitzeko Planak egin ondoren, langileen lan baldintzetan eragiten zuten alderdiak dagozkion negoziazio mahaietara eraman ziren.

Orientabideen eguneratze honek bere horretan uzten du 2021-2022 ikasturterako foro horietan negoziatutakoa, araudiaren esparrutik eta oraingo osasun egoeratik eratorritako eguneratzeekin batera. Dokumentuaren berri eman da ikastegietako dekanotza eta zuzendaritza taldeetan, batzorde parekidean, Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordean eta Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen plangintza batzordeetan.

10. Jarraipen Batzordea

Gobernu Kontseiluan dokumentu honen lehen bertsioa onartu ondoren osatutako jarraipen batzordeak, zeinaren osaera sarreran ematen baita, plangintzaren garapen egokia zaintzen jarraituko du, eta, hala behar denean, dagozkion aldaketak eta egokitzapenak egiteko eskatuko die organo eskudunei.

2021-2022 ikasturterako irakaskuntza eta ikaskuntza planifikatzeko orientabideen bertsio eguneratu hau zeregin hori betetzeko egin da, hain zuzen ere.

11. 2021-2022 ikasturterako orientabideen eta planen eguneratzeak onartzeko egutegia

Apirilaren 29a: testu hau 2021eko apirilaren 29ko Gobernu Kontseiluan onartuko da.

Ekainaren 30era arte: Ikastegietako batzarrek *2021-2022 ikasturtearen irakaskuntza egokitzeko planak* onartuko dituzte. Edonola ere, matrikula aldia hasi baino lehen onartu beharko dira, eta ikasleen esku egon beharko dute webgunean.

Glosarioa

- ➔ **Urruneko hezkuntza:** Hezkuntza eredu honetan ikasleak ez daude prestakuntza ematen den lekuan. Edonola ere, askotan erabiltzen da ere teknologia gehiegi erabiltzea eskatzen ez duen hezkuntzari erreferentzia egiteko. Esate baterako, ikasleei materiala bidaltzen zaie, beren erritmora ikas dezaten.
- ➔ **Prestakuntza asinkronoa:** Irakaskuntza-ikaskuntza prozesu bat, non ikasleen eta irakasleen presentzia modu geroratuan ematen baita; hau da, ikasleak eta irakasleak ez daude aldi berean leku berean. Teknologiari esker, batzuen eta besteen ekarpenak hezkuntza plataforma batean erregistratzen dira, eta ikasleek beren erritmora ikasten dute, gainbegiratuak izan gabe.
- ➔ **Prestakuntza presentzial egokitua:** Prestakuntza gehienbat presentziala, eskola telematikoekin eta/edo saio asinkronikoekin osatzen dena.
- ➔ **Prestakuntza sinkronoa:** Online prestakuntza denbora errealean ematen da, eta ikasleen eta irakasleen arteko interakzioa aldi berean gertatze da.
- ➔ • **Prestakuntza telematikoa:** Prestakuntza telematikoa Interneten ematen den irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren modalitate bat da. Irakaskuntza telematikoa Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKTak) bidez ematen da. Prestakuntza telematikoa antzeko adiera duten beste termino batzuen bidez ere ezaguna da: teleprestakuntza, online prestakuntza, prestakuntza telepresentziala, prestakuntza birtuala, e-learning irakaskuntza edo hezkuntza birtuala.

ERANSKINA

IRAKASKUNTZA EGOKITZEKO PLANA

*Taulak diseinatzean kontuan hartu dira GAURtik atera daitezkeen datuak.

IKASTEGIA:

PLAN_KOD	PLANA	KREDITU PRESENTZIALEN EHUNEKOAK	KREDITU TELEPRESENTZIALEN EHUNEKOAK

Ikastegiko Batzarrean onartzeko data:

**Ehunekoak kalkulatzeko, titulu bakoitzean eskainitako irakasgai guztiak hartuko dira kontuan.

***Titulu guztietan, eta osasun agintariak baimentzen badute betiere, irakaskuntzaren % 75 gutxienez presentziala dela bermatzen saiatuko gara.

PLAN-KOD	PLANA	IKASTU LAUHIL.	IRAKASGAL_KOD	IRAKASGAIA	KREDITUAK	KREDITU PRESENTZIALAK	KREDITU TELEPRESENTZIALAK

*Ezinbestekoa da taulan sartzea ohiko planifikazioarekiko egokitu behar izan diren irakasgaiak. Ez da beharrezkoa soilik presentzialki emango diren irakasgaiak sartzea; dena dela, sar daitezke. Ikastegiak egoki irizten badio.

** Gormendatzen da soilik eskola telepresentzialak ez ematea talde eta lauhileko bakoitzeko 2 irakasgai baino gehiagotan, ezta 15 kreditu baino gehiago ere, master tituluaren kasuan.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea